

2001-09-08
aurkibidea**EUSKAL HERRIA**

6

**EAJ eta EAren erabakia
kritikatu du Batasunak**

Estradizioaren berehalakotasunaren aldeko txostena onartu dute Euroganberan EAJk eta EAK, eta hala eginez, PPren strategiari babesa eman diotela esan du Batasunak.

EKONOMIA

12

**Poloaren eredu berria
ekoizteko laguntzak**

Volkswagenek 66.554 milioi pezeta inbertituko ditu Landabenen, Polo autoaren eredu berria eraikitzeko. Azaroan aterako dira merkatura lehen autoak.

EKONOMIA

13

Burtsen aste beltza

Europako burtsek gainbeheran itxi dute astea, urteko gutxieneko balioan. Teknologia alorreko enpresen krisia gainditu ezinik daude burtsak.

NAZIOARTEKOA

15

Urteurrena Txetxenian

Atzo ziren hamar urte independentzia lortu zuela Txetxeniak, Kaukasoko errepublikak. Egun, Errusiarekiko gerran, azken odol tanta emateko prest azaldu da Grozniko Gobernua.

GAIAK

32

Hemodialisiaz gogoeta

Hemodialisia ezinbestekoa dute giltzurruneko gaixoei. Baina azken egunetan polemika bizia dago horren inguruan, gaixo ugari hil baita tratamendua egin eta gero.

KULTURA

38

Zinemaldia, berotzen

Donostiako Zinemaldia hilaren 20an hasiko da eta 29an amaitu. Mikel Olaziregik zuzenduko du lehenengo aldiz eta 16 film salatuko dira Urrezko Maskorra eskuratzeko.

euskaldunon 3.341 zenbakia
Egunkaria**Ohorezko Lehendakaria:** Martin Ugalde**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkarria:** Iñaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Mikel Sorozabal**Publizitatea:** Idoia Sanz**Egoitza Nagusia:** Gudarién etorbidea, z/g 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com**IKUSKATURIKO HEDAPENA**
Batxorde Parekidea: 72564 E. Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X
QJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA**ORDEZKARITZAK** ■ **Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Irabie Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapurti, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pelletier 35, 1 503 Posta
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559525751**udamina**

Pako Aristi

‘Feeling’

Ez nuen aspaldi hitz hau entzun. Bi pertsonen edo talderen arteko harreman ona esan nahi du, edo ona baino gehiago, liluraren mugetan abiatzen dena. Batasunak erabili du hitza Gasteizko Udalaren eta Ertzaintzaren arteko harremana deskribatzeko. Gure bizitza *feeling* onaren eta txarraren artean doan ibaia da askotan.

Feeling arazo handiak ditu Euskal Herriak. Sokatirarekin beti oso ona izan dugu, oro har kirol guztiekin bezala. Sakanako emakumeek hautsi dute *feeling* hori, eta sekulako polemika piztu, egunak eta egunak daramatzana egunkarietan eta irratiaren. Nik beti egundoko desproporzioa ikusi dut euskaldunek kirolari ematen dioten garrantziaren eta kulturari ematen diotenaren aldean. Giharrak astintzen dituen edonork lortzen duen oihartzun mediatikoa ez dugu inoiz liburuekin lortuko. Tourrik kaxkarrena egin duen euskalduna bi urte idazten pasa ondoren liburua kaleratzen

duen idazle bikaina baino askoz gehiago ateratzen da egunkarietan. Nik ezin dut *feeling* onik eduki horrelako herri batekin, sokari tiratzea edo mendian gora joatea sozialki hirurehun orriko liburua idaztea baino miresgarriagoztat daukan herri batekin.

Japoniakoaren harira, gure ereserkiarekin ere ez dugu *feeling* onik euskaldunok, esan nahi dut, Euskal Autonomia Erkidegoko. Ez du inork ezagutzen, ez musika eta ez letra, ez gaitu ordezkaten. Ez du ezertarako balio gaur egun, ezta Espainiakoaren ordezkari batek ere.

Gaur ospatuko da Hondarribiako Alarde trista. *Feelinga* galdu duen beste herri bat, Irunekin batera. Laster ikusiko ditugu Europako talibanei buruzko erreportaiaren batean Hondarribiko (eta Irungo) agintariak.

Berebiziko *feelingarekin* Arantzazuko fraideak dabilta, 1.000 milioiko egitasmoa eskuartearen dutela. Hor ikusi ditut pasieran Lehendakariarekin. Haiek desagertuko omen dira, baina Arantzazu herriarentzat geldidadila, txukun eta apain. Hala ulertu dut. Egunkari honek eta *Garak* hala aurkeztu dute titularretan: «Kulturgune berria Arantzazun», gero Pello Zabalaen hitzak jasoz, «herriarengandik ahalik eta hurbilen» nahi dutela utzi Arantzazu.

Baina horra hor *El Diario Vascoren* titularra: «*Aranzazu renova-rá en tres años su entorno urbanístico*». Etxegintzaz ari direla dirudi. «Diario» beti, herriaren kulturaz jardun behar duenean, *feeling* faltan egoten da.

hizpideak**Bartzelona komandoaren
ustezko haria**

Bartzelona komandoaren kontrako operazioan 7 lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak Katalunian: 6 espetxeratu egin zituzten eta bat aske utzi. Ondoren, euskal herritar andana atzeman dute, gehienak Araban bertan, komando horrekin zerikusia dutelakoan. Ustez, dokumentazio ugari aurkitu diete eta Araba komandoaren azpiegitura ere desegin dute. Polizi operazio *bikaina*. Beste era batera ere kontatzea daiteke: Kataluniatik kanpo 14 gazte atxilotu dituzte, 9 aske dira, 3 oraindik galdekatzen ari dira eta 2 besterik ez dituzte espetxeratu. Bitartean, Guardia Zibilak hamaika etxe miatu du, ordenagailu ugari eraman eta alderdi gehien onespina lortu. Hau ere irudi operazio bikaina.



Guardia zibilak AABen bulegoa miatu ondoren.

**Herri Katalanak
autodeterminaziorantz**

Datorren astean Diada —aberri eguna— dela eta, autodeterminazioaren aldeko mozio bat onartuko dute Maresme eskualdeko (Katalunia) udal gehienek. Eskualde horretako talde politiko ia guztietako 60 zinegotzi eta alkatek osatutako Autodeterminazioaren Aldeko Mahaia ekainean aurkeztutako ekimena da, eta poliki-poliki lurralde osora zabaldu nahi duena.

Valentzia, Rosello eta Balearretako egoera konplexutzat jo arren, herri sentimendua berpizten ari dela esan dio EGUNKARIARI Arenys de Mar (Maresme) herriko alkate eta Autodeterminazioaren Mahaiko kideak.

**Emakumeak, berriz ere,
festatik at**

Hondarribiko Alardean soldadu gisa desfilatu nahi duten emakumeak baztertuta geratuko dira gaur berriz ere, ezin dute euren herriko jaietako ekitaldi nagusian parte hartu. Joana Mugarrietakoa taldeak eskatutako badaezpada-ko neurriak —Jaizkibel konpainia desfilean sartzea— EAEko Justizi Auzitegi Nagusiak ez onartzea erabaki zuen atzo. Jaizkibel konpainiak, hala ere, sartzeko saioa egingo du. Jakitun dira ez dutela Alardean normaltasunez desfilatuko, baina lortuko dute alardea diskriminatzailea dela erakustea; izan ere, jaiaren parte hartu nahi duen herritar talde bat, emakume izate hutsagatik, baztertuta dago Hondarribian. Hori ukazina da.

Gonzalez de Galdeano, Olano eta Beloki, atzo, entrenatzen.

**Euskaldunak faborito
Espainiako Vueltan**

Gaur hasiko da Salamancan (Espainia) aurtengo hirugarren itzuli handia, Vuelta. 3.000 kilometro egingo dituzte txirrindulariek hiru astean, eta Euskal Herriko karreristak dira proba irabazteko hautagaiak. Belokik, Igor Gonzalez de Galdeanok eta Abraham Olanok gidatuko dute ONCE-Eroskiren jarduna, Unai Osak ibanesto.comekoa eta Roberto Laisekak eta Haimar Zubeldiak Euskaltel-Euskadi taldearena. Heras, Escartin eta Sevilla espainiarrak izango dituzte kontrario. Bidean, gainetan bukatzen diren sei etapa, hiru erlojupeko —gaur lehenengoa— eta kronoi-goera bat.